

UITZI ko euskara

Elkarrizketan: JUAN PELLO ARRIZURIETA SAGASTIBELTZA (87urte)

MIKAELA ARRIZURIETA SAGASTIBELTZA (80 urte)



Ikastaroa: "FRESKATZE"

Ikasgaia: NAFARROAKO EUSKALKIAK

Irakaslea: YOLANDA OLASAGARRE

Ikasleak: MARIAN AZPIROZ

FERNANDO ETXETXIPIA

Data: 2007/03/20

UITZI

...

- Baatzan gauz asko eitten giñuzen. Oi, oi, oi...
- Dena etxen eitten tzen da.
- Litxuk eta tipulek eta... udarek ee bai bikañek. Da arbol batek udarek eta saarrak ematen zittun. Bi klase batek, arbol batek. Lenoo udarek bakarrik ematen zittun , beño nik jarri nion erdin saarrain txertoa. *Pepita con pepita* ein ditteke, ta *hueso con hueso*. Ta udarek ee pepita baito, ta saarra jarri nion. Don Tomas zena etorri zen bein da, “zer da au!”, au, oixe bakarrik, erdin jarri nion saarra ta oixe. Besteik ezta.

- ***Bakarra izango zen Uitzin, ez?***
- E?

- ***Bakarra izango zela Uitzin olakoa.***
- Bai naski, bai. Geo Funesen jarri nittun da, baatzako langa iikita uzten nun, da emakumek beire, jo ta *¿Qué es eso?, ¿Qué es eso?*, arbolai, ta alaxe, kapritxo'at.

- ***Ta geo bazkaltzeko, normalen menu berdina jaten zenuten?***
- Bai, euneo bazkaltzeko, lendaizi litxue, *lechuga*, tomateikin. Entsalada.
- Geo banaarrak, geo banaarrak azaikin.
- Ue zen bikañe, ue,...Ue zen bikañe, ze platerak jaten nittun.
- Urdaye puske, urdaye puxke zula, banaarrak eosten zeen urdayeikin. Txerrie iltzen tzenin bikain, akaatzen tzenin kontuk. Txerrikik irauten tzun bittarte, pues, naikoa izaten tzen, beño geo, pixko'at gutxixeo.

- ***San Martinetan hiltzen zenuten?***
- Bai, txerrie il da, partitzen zen errin, etxez etxe partitzen tzen puxke'at. Oolkie, urdai puxke'at, eta geo kostille pixko'at, o zerbait... partitzen tzen etxe bakoitzen.

- ***Ta oi San Martiñetan bakarrik? O beste festa batzutan e bai?***
- Ez. Txerrie iltzen tzen, pues, ilbeltzen eo ola, geina. San Martiñetan leenbizi iltzen giñun bat txikie, da geo iltzen giñuzen beste bi igual.
- Denak iltzen zittun atte zenak, nola sartzen zien kutxilloa. Haik karraxik, txerrik!
- Gaixoak!
- Balore bear tzen oi eitteko.
- Ze gutxi pentsatzen giñun, e? Ze gutxi pentsatzen giñun.
- Geo oola artu ta oolkik eiñ, ta partitzea. Oolkik, urdai pixko'at...
- Ta geo beste giar pixko'at eo.
- Iruitzen zena.
- Zeaik obeena, puxkeik obeena eamaten tzen monjain etxea ta apezetxea.
- Ta apeza, oixe!
- Aitaa [haietara] eamaten tzen axpixon. Axpixon puxke'at, apezaintzat bestee monjaintzat. Zengatik Uitzin bazeen monjak, ta maixue de bai. Gu txikik giñela maixue de bazen. Ta geo monjak, karidadekoak; ta ara joaten giñen eskolaa.
- Maiz etortzen zat ikustea, Sor Irene.

- ***Festetan eta, zermouz, Uitziko festetan?***
- Erriko pestetan, ooi!
- Gizonak primeran, erriko pestetan gizonak primeran beño etxee kanpoko jendez betee eoten tzen ta, ba'akizo, goiz guzie oatzek eitten, da etxee garbitzen, da geo bazkaltzeko jende asko izeten zen da. Ta bazkalondoan ontzik garbitzen.
- Gu, berriz, plazaa joan ta pillotan.
- Bai, gizonak gosaldu ta pillotaa. Ta gosaltzen tzen, bere (begira): iltzen tzen ardie, pestetako iltzen tzen ardie, ta eitten zittuen tripiki-zopak; gosaltzeko jaten zittuen tripiki-zopak eta geo txuri-ta-beltza. Txurie zen arraultzeikin, ta eitten tzuen esteen sartu; ta beltza izeten tzen oolaikin eitten tzena. Ze goxoa zen, e, Joan Pello?
- Gosalondoan, ze partidoak jokatzen....
- Bai, zuek partiduan ta gu oatzek eitten. [barrez]
- Plazaa joan, da juntatu giñen gazte kuadrille, da Gorrititik de bai kuadrille'at. Da Joxe Goikoetxekoa ta Migelenekoa, Juanito, partido'at eiñ beartzuela, ta neekin eiñ beartzuela partidoa; ta nik ei, ei, ei... ez nai! Ta Gorritin zen **obena** re an zeoan, da Bunoan mutil zeoan bat, jarri zuen aurrin, ta nei, berriz, Juanito bee anaie, Juanito Migelenekoa. Da biñeka partidoa. Mekasuen! Eman da eman da, ni arrittuik nola jokatzen nun , da jendee de bai: "beittu, beittu" ,dedio! jota, jokatu zuenak. Dirue jokatu baitzen. Joxe Goikoetxekoak dirue jokatu, ta jokatu nee alde. Barandan beire eoten tzen mezaa joan da aurretik aldi'eten; nola jokatzen giñun guk ta ni atzetik beti, ta ola eitten zien, ta nik ematen nion nik! Da partidoa nola jokatu zen pestakoan, da oeitabi ta amalau irrazi giñun. Atzeneko sakee Gorritiarrak ezkerrea eiñ tzun ta'n ezker paita; da ezkerreko arrastoa , bueno faltako gorrie, da gorrin gañen bear tzun, da zea re, guetzat falta. Ta ue saltoa in nun nik; atzeneko tantoa.
- ***Gerriko gorria eta erabiltzen al zenituen?***
- Ez, ez, batee. Ez, etzun faltaik eitten. Ni Juanito Mielenekoa ta Bunoan mutil eoten tzena, eskuñeko baztarren pillota'en bat joaten zenin da. Gorritiarrak ta ni eman da eman da, eskasetik atzen ("*eskasa*" *frontoiko lurrean dagoen arrasto bati esaten diote*) pillotan ia beti, ni arrittuik neoan nola ematen nion. Beño ala pastu zen.
- ***Ya, ya. Geo ama, denak etxea joaten tzeen?***
- Da Gorritiarrak da esaten tzuen, nik enun uste ola jotzen ziñunik, ezta pentsatu' re.
- Juan Pello, ta ue zer tzen, pestetan?
- Pestetan.
- Ta pestetan ze kostunbrek...
- Jakiñe zuk e.. gosarie prestatu ta guk gosaldu ta plazaa. Ordun bero-bero, pillota partidue...
- Gizonak plazaa. Bertsolarik ee izeten tzeen.
- Bai, eberdin, eberdin.
- Bai, ta gu, pues, partidua akaatzen zenin apezta'de an eoten zen ta, Angelus errezatzen zun. Ta geo, partidoa bukatzen zenin...pestetan...
- Hamabin ez kile jotzen zuen.
- Bai, hamabik jotzen zuenin apezak errezatzen zun Angelus. Han denak txapela kendu ta Angelus errezatzen. Oso kostunbre politteke zeen,e? Oan eztakit zer eitten izein duen.

- ***Ingurutxoa ta dantzatzen zenuen?***

- Ingurutxoa ta, bai oixe...

- ***Pestetan de bai?***

- Ik de bai? Ik'e dantzatzen , bein o beste. Ni bai, ni ingurutxoan ibiltzen nintzen. La larala...
- Oan kontatu bea'izuet gauz bat parra pixko'at eitteko: Errazkingo laun batek, esaten zeen beti pestaa joateko, pestaa joateko. Da alako'aten joan nintzen, da bazkaldu, da mamie atea zuen postretako; da Errazkindarrak mamijantzalek. Da, onetxek bertsoa meezi'ik denek. Da ni, berriz, ño! Bota bear diat ba nola eo ala!; da Uitzikoak ,berriz, barek, banaar jantzalek, banaarrain berde jaten zittuena. Hola kantatu nun.
- Ireestarrari deitzen tzien mamijantzalek. Ireestarrari (hauek zein herritakoak dira?) deitzen tzien mamijantzalek.
- Errazkindarrari! Da ola kantatu nun:

Ondaturik gelditu zen
Uitziko landa
banaarrak jaio berrin
erritarrak janda

Deseo dezuna lagun
bihar det atera
Errazkiñe etorri naiz
mamie jatera

Ze parrak eitten zittuen!

- Mamijantzalek esaten baitzien.
- Oixe, da Uitzikoak barek; da nik denak sartu, momentun, e? Nola etorri zitzeen nei ue.
- Azpiutzarrak karakolak, Lekunberrikoak txakurrek...
- Da Gorrittiarrak arrogantek.
- A! Da Baraartarrak lañoa.
- Lañoa Baraartarrak, jakiñe.
- Aik denboak!

- ***Alboko errietara joaten zineten ordun pestetaa ta?***

- Erritara, oixe!

- ***Gorrittiko pestak zeenin, Gorrittie, oñez. Gorrittie nola joaten ziñeten, ama?***

- Gizonak joaten tzeen bazkaltzea ta gu joaten giñen atsalden dantzan ibiltzea. Da..., beño, pariente printzipalak giñuzen, etxe..., erritaa joaten giñen gu ree , joaten giñen.
- Gorrittin Bertakoetxea da Etxeberrie. Battot nik grabatuk zintan Etxeberriko, ta Gorrittiko meza dena, Manoli de bai; Manoli ta Maria Paz Buztiñekoa ta, geo ikusteko.
- Telebisioan. Gorrittia joaten giñen pestaa, oñez. Oñez joaten giñen bueltatu de oñez. Ta Azpiutzea de bai. Orroko Basaitzun, soroak Basaitzun izena zuna, ta araa joaten giñen, ta andik beira, an maldan beira Azpiutze; beño klaro, geo bueltakoan malda iyo ber, ta or komerie!
- Bai, ue komerie! Bein joan giñen gu Lezaetaa zeara, *valle prozesioan*, ta Azpiutzen bazkaldu, da Manuel Buztiñe erdi mozkortu zen, eo oso re bai da... aldapan gora ta, kantari ue: " Bidi luzian aldapa, ora pronobix,..." ta

aik parrak eitten giñuzen, oi, oi ,oi. Beño allatu giñen nolabaitt'ee gora, ta ala goitti beira..., olaxeko zeak, *valle prozesioak* eta...

- Santa Engrazi de izeten tzen. Uitzin bazen ermitte'at, Santa Engrazii dedikatue, ta besteat Santa Kruz. Ta Santa Krutzee joaten tzen... ostiel santun joaten giñen biden "via cruz"-i eñez. Da Santa Engrazie joaten tzen martxoan, apeellen. Apeelleko amaseien da Santa Engrazi. Da joaten giñen, eun artan joaten tzeen Leitzekoak da Uitzikoak.
- Ta Lekunberrikoak.
- Ez, ara Lekunberrikoak...
- Bai, Santa Engrazie bai.
- Bai, beño beste eune at izeten tzen, valleko eune. Ta ordun etortzen tzeen *valle* guzikoak. Pazkondoan, pazkondoan, ala usteot izeten tzela. Beño illeen amaseien nik uste Leitzarrak eta Uitzarrak.
- Ori. Ori, ori, ori...
- Da geo beste eun baten joaten tzen, pues, zeara.

- ***Ta ze itten zen, meza ta?***
- Meza ta geo,... eurie, bere: sekatee balen bazen asten tzen, Uitzitik joaten giñen ermittea; Santa Engrazi artzen tzuen ta errie eamaten tzuen, da eitten tzien nobena; eurie bear bazen eurie eitteko, ta sekate nai bazen ez eitteko izein zen.
- Oain beño fede geio izein zen, naski, e...

Uitziko euskara

Uitziko hizkera, Zuazoren sailkapenaren arabera, erdialdean sar dezakegu.

Ezaugarri batzuk

- Λ Hemengo euskarak zerbait nabarmena badu, hori bustiduraren erabilera ugaria da: *eitteko, bikañe, pillota, arrittuik, beittu, beño, Gorritikoa, ermitte'at.....*
- Λ “j” ahoskatzen dute: *jan, joan, jakiñe, jarri...*
- Λ “u” eta “i” ondoren “e” egiten da: *berdure, txerrie, a(i)tte, txikie, ardie, maixue...*
- Λ Hitz zaharretan f → p: *pesta...*
- Λ Aferesia gutxitan azaltzen da: *(e)ta, (e)da,...*
- Λ Ez dugu sinkoparik ikusi.
- Λ Hitzen barruan zenbait kontsonante ez dituzte ahoskatzen: *ge(r)o, ba(r)atza, bana(b)arrak, e(g)itten, o(r)ixe, o(d)olaikin...*
- Λ *Hitz batzuetan g → b : eberdin (eguerdian)...*
- Λ Soziatiboa **-kin** erabiltzen dute: *oolaikin, tomateikin, azaikin...*
- Λ Denbora adierazteko **-ean**: “*akaatzen zenin kontuk!*” “*partidoa bukatzen zenin”...*
- Λ Honelako erakusleak erabiltzen dituzte: *hori → oi, hura → ue, haiek → aik...*
- Λ **-xe** maiz erabiltzen dute: *oixe, uexe, onetxek, gutxixeo...*
- Λ “Zergatik” galderari erantzuteko modu hauek aurkitu ditugu:
“*Mamijantzalek esaten baitzien”*
“*Dena etxen eitten tzen ta”*
“*Zengatik Uitzin bazeen monjak*”
- Λ Aditzetan badira berezitasunak baina oso zaila egiten zaigu hori aztertzea. Zerbait aipatzekotan, ezaugarri hauek:
-Aditz laguntzaileetan “o” “u”ren orde: *dot (dut), baito, uste(d)ot...*
-Geroaldi forman badakigu **-go** eta **-en** erabiltzen dituztela, baina transkripzioan azken hau bakarrik azaldu da: “*Oain beño fede geio*”

izein (izanen)zen, naski.” “ *Eztakit zer eitten izein (izanen) duen.*”
-Ahalera forma hau azaldu da: “*pepita con pepita ein ditteke*”

Λ Hildako pertsoneri buruz hitz egitean “zena” erabiltzen dute: “*hiltzen zittun atte zenak*”, “*Don Tomas zena etorri zen behin da...*”

Λ Harridura adierazteko: “*aik karraxik, txerrik!*”, “*aik denboak!*”

Λ Lexikoa:

-*tripiki-zopak*: ardi saldan bustitako ogi puska dira, piper beltza gainetik bota eta hamaiketarako jaten zuten.

txuri ta beltza (tripotxa), *atzeneko* (azkeneko), *ohatze* (ohe), *mutil* (morroi), *ilbeltza*, *banaarrak*, *expixiñe (azpizuna)*...

-Etxeen izenak maiz erabiltzen dituzte pertsonak identifikatzeko orduan: “*Juanito Mielenekoa*”, “*Jose Goikotzekoa*”, “*Bunoan mutil eoten zena*”, “*Maria Paz Buztiñekoa*”...

-Larraungo zenbait herri eta haien goitizenak aipatzen dituzte:

Uitzikoak → *barek* (bareak)

Errazkindarrei → *mamijantzalek*

Azpiuztarrak → *karakolak*

Lekunberrikoak → *txakurrek*

Gorritiarrak → *arrogantek*

Baraartarrak (Baraibar) → *lañoa*